



Mintzola Fundazioa HIZKUNTZA KUDEATZAILEA hautatzeko irizpideak

Villabona, 2010.08.25

Mintzola Fundazioa 2008an sortua da, eta bost erakundek osatzen dute Patronatua: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Villabonako Udalak, Euskal Herriko Bertsozale Elkartek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Kutxak. Helburuak ditu, alde batetik, euskararen ahozko tradizioaren behatoki dinamikoa izatea, eta bestetik, gizarteak ahozko komunikazioaren esparruan dituen premiei erantzun egokia ematea.

Mintzola Fundazioaren jarduna lege-xedapen hauetan oinarritzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioak arautzen dituen 1994ko ekainaren 17ko 12/1994 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua arautzen duen 2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua arautzen duen 2007ko ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua.

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da Mintzola Fundazioaren hizkuntza kudeatzailea kontratatzeke hautapen prozesua abiatu eta arautzea. Hautapen prozesu hau publikotasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarrituko da.

Hizkuntza kudeatzailearen eginkizuna izango da Mintzola Fundazioak aurreikusitako dituen ikerketa zein egitasmoak aurrera eramatea:

- **Ahazkotasuna oinarri duten ikerketak:** ikertzaile banako eta talde nahiz erakundeekin harremana eta talde-lana bideratzea ikerketa eta garapena landu zein sustatuz; ikerketari dagokionean, irakurketak gauzatu,

diagnosiak egin, esku-hartzea bideratu, analisiak egin eta txostenak idatzi zein aurkeztea.

- **Formazioa eta transmisioa:** ikerketatik abiatuak diren material didaktikoak gauzatzea eta teknologia berrien bitartez bideratzea. Horrekin bat, formazioa eman eta bideratzea ahozkoatasunaren alorrean garatzen den ezagutza landuz, adituekin elkarlana bideratuz, ikastaroak diseinatu eta eskainiz.
- **Gizarteratzea:** ikerketatik abiatzen den edozein ezagutza mota gizarteratzeko tresnak bideratzea jardunaldiak antolatuz, argitalpenak bideratuz, tailer edo ikastaroak prestatuz...

2. Nahitaezko baldintzak

Hautapen prozesu honetan parte hartu ahal izateko, eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik izangaiek ondorengo beharkizunak bete behar dituzte, gutxienez:

- Unibertsitate mailako prestakuntza. Batez ere hizkuntza kudeaketa alorrean: soziolinguistika, psikolinguistika eta hizkuntzaren didaktika.
- Euskaraz eta gaztelaniaz maila jaso izatea, bai ahoz bai idatziz.
- Eskarmentua ikerketa eta hizkuntza normalkuntza lanetan.
- Harremanak lantzeko gaitasuna.
- Teknologia berriak erabiltzeko gaitasuna.

Batez ere kontuan hartuko da:

- Hizkuntza kudeaketan, ikerketa eta formazio alorrean izandako eskarmentua.
- Ingelesa edo frantsesa jakitea.
- Talde lanerako trebetasunak.

3. Baloratuko diren alderdiak

Gutxienez eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten hautagaien kasuan, jarraian azaltzen diren alderdiak baloratuko dira.

- Ikerketa: 30 puntu

Esparru honetan hautagaiak dituen ikasketak eta esperientzia baloratuko dira, bereziki hizkuntzaren, komunikazioaren edo hizkuntzaren didaktikaren alorren batean bada.

- Formazioa: 30 puntu

Alor honetan hautagaiak eginak dituen ikasketak eta esperientzia baloratuko dira.

- Teknologia berriak: 15 puntu

Alor honetan hautagaiak duen jakintza eta esperientzia baloratuko dira.

- Hizkuntzak: 15 puntu

Nazioarteko harremanetarako bi hizkuntzatan maila instrumentalean moldatzea baloratuko da, bereziki frantsesez eta ingelesez.

- Hautaketa taldeak gehi liezaiokeena: 10 puntu

Hautaketa taldeko banakoek kontuan hartuko dituzten balioak sartzen dira atal honetan.

4. Aurkeztu beharreko agiriak

Hautapen prozesu honetan partaide izateko, Curriculum Vitae-a (CV) bidali behar da 2010eko irailaren 14a baino lehenago, baloratuko diren esparruen azalpen zehatza eginez, ondorengo helbidera:

- Posta elektronikoko bidez mintzola@mintzola.com helbidera.
- Edo, bestela, helbide honetara:
Mintzola Fundazioa
Subijana Etxea
Kale Nagusia 70
20150 Villabona

5. Dokumentuak osatzea

Elkarrizketak izateko deituak diren hautagaiei ondorengo dokumentuen kopiak eramateko eskatuko zaie:

- Nortasun agiriaren fotokopia edo agiri baliokidearena (atzerritarren kasuan).
- CVan azaldutakoa egiaztatzeko beharrezko diren agiri eta tituluaren kopiak.

Hautagaiek aurkeztutako agiriak aski ez badira edo balorazioa egiteko zalantzarako biderik uzten badute, Mintzola Fundazioak agiri gehiago eskatzeko eskubidea izango du.

Halaber, aurkeztutako kopien jatorrizko agiriak erakutsi beharko dituzte, Mintzola Fundazioak hala eskatuz gero.

6. Hautapen prozesuaren epaimahaia

Hautapen prozesu honetako epaimahaia izango da Mintzola Fundazioaren zuzendaritza, bertako langile eta batzorde eragileko kideek osatua.

Epaimahaiak jarduteko autonomia osoa izango du, eta prozesua legezkotasunez eta objetibotasunez garatzea zainduko du.

Era berean, indarrean diren legeak aintzat hartuta, hautapena ebazterakoan sor daitezkeen zalantzak argituko ditu, hautapen prozesua ondo garatzeko behar diren erabakiak emango ditu eta deialdi honetan aurreikusten ez diren kasuetan jarraitu beharreko irizpideak erabakiko ditu.

Epaimahaiak kanpoko adituen laguntza eska dezake, hautapen prozesuaren urrats guztietan.

7. Lehiaketa ebazteko modua

Hautapen prozesuak lau fase izango ditu:

- Merezimenduen balorazioa I: nahitaezko baldintza guztiak betetzen dituzten hautagaiei merezimenduak Zuzendaritza Batzordean baloratuko dira, aurkeztutako CVetan oinarri harturik, eta deialdi honen 3. puntuazaldutako irizpideen arabera.
- Merezimenduen balorazioa II: CVetan oinarri harturik balorazio handienak dituzten hautagaiei nortasun agiriaren edo agiri baliokidearen, tituluen eta beste agirien kopiak eskatuko zaizkie CVetan azaldutakoa egiaztatzen. Zuzendaritza taldeak elkarriketatu egingo ditu, deialdi honen 2. eta 3. puntuazaldutako irizpideen arabera merezimenduen balorazioa osatzeko.
- Azken elkarriketa edo ariketa: epaimahaiak balorazio handienak dituzten hautagaiekin elkarriketa bat edo ariketa praktikoa bat egitea proposa dezakete.
- Aukeraketa: merezimenduen balorazio eta azken elkarriketetan oinarriturik, Mintzola Fundazioaren hizkuntza kudeatzailea aukeratuko da.

8. Datuen babesa

Hautapen prozesu honen barruan hautagaiek Mintzola Fundazioaren esku uzten dituzten datu pertsonalak babesturik izango dira, 1999ko abenduaren 13ko 17/99 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, eta hautapen prozesuaren zeregin soiletarako erabiliko dira.

Villabonan, 2010eko abuztuaren 25ean